

Unitate didaktikoa

Haurtxo polita

1/2

Abesti honen moldaketa-motari dagokionez, planteamendu argi bat egiten da: eskuin-eskuak garbiro darama melodia (horrek ez du esan nahi ikasleak beste abesti batzuetan ikasitako teknikak erabiliz osatu ezin duenik); ezker-eskuaz gauzatuko den akonpainamendua, bestetik, XX. mendearen hasierako BLUES eta JAZZ musikako pianoaren tankerakoa izango da, STRIDE deritzona. Beltzetan oinarritutako akonpainamendu mekanikoa da, eta akordeen oinarritzkoak eta hainbat modutara antolatutako akordeak berak txandakatzen ditu.

Eta harmoniaren ikuspegitik, moldaketa honen helburua da BIGARREN MAILAKO DOMINANTEAREN akordeak intentsiboki erabiltzea, noski, gauden tonalitatearen, DO MAIORREN, AKORDE DIATONIKOEZ gain.

Ikus ditzagun akorde horietako batzuk eta horien ezker-eskuko aldaerak:

C⁶₉



C₆



1. konpasean SEIDUN ETA BEDERATZIDUN akorde klasikoa dago, I. graduko akordeak erabiltzen diren moduetako bat. Lehenbiziko beltzak akordearen OINARRIZKOA jotzen du, eta, gero, bigarren beltzaren akordean ez da sartu oinarritzko hori. Hori aukera bat da, konpaseko bigarren beltzaren akordean oinarritzkoa ere erabil baitaiteke; beraz, akorde maior seiduna izango da -akorde maiorren ohiko aldaera, oro har-.

E7(b9)



1. konpaseko bigarren akordea BIGARREN MAILAKO DOMINANTEA da, V7/VI, hain zuzen. Moldaketa honetako akorde guztietan bezala, lehenbizi akordearen OINARRIZKOA entzuten da, eta, gero, horren aldaera bat. Kasu honetan, aldaeran ez da sartu OINARRIZKOA (oraintxe entzun baita), eta, horren ordez, 'b9' dago, akorde horren tentsio propioa. Berez, ez da oso egokia TENTSIO bat izatea aldaera baten nota baxuena; akordearen sonoritatea argiagoa izan dadin, horren ordez NOTA GIDARIA (hiruduna edo zazpiduna) erabiltzea komeni da. Hala ere, kasu honetan, aldaera hori aukeratu da adierazteko azken arau hori ez dela gauza mugiezin eta finko gisa hartu behar; zer edo zer atzera bota baino lehen, aukera guztiak probatu eta entzun behar dira.


Aurrekoaren harian, nabarmendu behar da aldaera horren lau notek akorde GUTXITUA osatzen dutela. Garrantzitsua da ikustea 'b9' duen DOMINANTEAREN akorde batek akorde GUTXITU bat duela: HIRUDUNAK (maiorra), BOSTUNAK (justua), ZAZPIDUNAK (minorra) eta BEDERATZIDUNAK (minorra edo 'bemola') osatuta. Kasu zehatz honetan, akordea 'G#o7' gisa zifra daiteke, moldaketako hurrengo akordera -'Am7' 2. konpasean- igarotzeko IRAGAITE-AKORDE gisa. Gauzak horrela, aldaera horren notarik baxuena akorde GUTXITU horren ZAZPIDUN GUTXITUA da. Akorde hori berriz azaltzen da 12. konpasean, eta, INBERTITUTA dagoenez -HIRUGARRENA BAXUAN dago- nabariagoa da aipatutako hori: AKORDE GUTXITUA entzuten da argi eta garbi.

Haurtxo polita

Unitate didaktikoa

2/2

2. konpasean C7 akorde bat dugu, eta horren ALDAERAN edo VOICINGean ikus dezakegu nola erabili ohi diren akorde-mota horiek JAZZean eta antzeko musikan. Akordea aztertuta, ikus daiteke huez osatuta dagoela:



- NOTA GIDARIAK: akordeko hiruduna eta zazpiduna.
- BEDERATZIDUN NATURALA OINARRIZKOAREN orde, konpaseko hirugarren beltzean entzun baita oraintxe.
- SEIDUNA edo HAMAHIRUDUNA akordea aberasteko erabiltzen da. Akordearen 5.aren orde erabiltzen da, hori JUSTUA denez, ez baitu ematen akordea argi eta garbi uler dadin oinarritzko informaziorik (ez dugu ahaztu behar SERIE HARMONIKOAREKIN zerikusia duten fenomeno akustikoen mesedetan, OINARRIZKOAREKIN berarekin konkomitantzia entzuten dela BOSTUN JUSTUA).

Nabarmendu beharra dago, aipatu dugunez, hainbat ALDAERA-mota izango ditugula. Horietako gehienak ez dute OINARRIZKORIK izango, akorde berri bakoitzaren lehenbiziko zatian entzuten baita beti, eta BEDERATZIDUNA gehituko zaio kasu gehienetan. Dominantearekiko 'akorde zazpidunen' kasuan (C7, D7, E7, F7, etab.) BEDERATZIDUNA NATURALA edo BEDERATZIDUN MINORRA ('bemol 9') izango da, dominante-akorde bakoitzak betetzen duen funtzioaren arabera.

Azkenik, esan behar da 6. konpasean dagoen akorde batek TENTSIO-konbinazio interesgarria duela: BEDERATZIDUN MINORRA edo 'bemol 9' eta HAMAHIRUDUN NATURALA. Bitarte-arkitektura dela eta SIMETRICO esaten zaion ESKALA batetik ateratzen da akorde hori. 'GUTXITUA tonu 1/2 - tonua' izeneko ESKALA da, hain zuzen ere, eta edozein oinarritzotatik abiatuta bi bitarteko horiek txandakatuta lortzen da:

